

## EKAIN KAZABON: "Barru-barrutik aterako sentimentuak plazaratzen saiatu gara Amaiurren"

Nafarroako Erresumaren konkistaren 500. urteurrenaren harira, hamaika ekitaldi egin dira urte honetan bai Oiarzunen eta baita Euskal Herriko toki askotan ere: Nafarroako erresumako gazteluak eta gotorlekuak izan zirenak markatzea, lip-dubak, nazio ekitaldiak eta manifestazioak...

Pier Paul Berzaitz kantari xiberutarrak *Amaiur 1512-2012* lana sortu du data gogoan. Pastoral itxura duen ikuskizun honek dantza, antzerkia eta kantua uztartzen ditu. Ekain Kazabon Aukeran konpainiako dantzariak ere parte hartu du proiektuan. Ikuskizun berean, Xanet Arozenak ere parte hartu du, musikarien taldean.

300 bat lagunek parte hartu duzue lan honetan. Makro-ikuskizun bat dela onartu dezakegu. Profesional eta amateurrak batera aritzen zarete. Esperientzia nolakoa izan da?

Oso esperientzia atsegina eta gratifikantea, edozein ikuspegitatik begiratuta ere. Dantzari bezala, bizipen bikaina, propio sortu genituelako ikuskizun horretarako koreografia bereziak, eta egia esan, barru-barrutik ateratako dantzak eta sentimentuak plazaratzen saiatu ginen. Ikuskizunari, motiboari oro har begiratu gero, oso harro, horrelako ikuskizun erraldoian parte hartzeko aukera izan genuelako, batez ere, proiektuaren esanahi eta mezuarengatik. Nonbait, aspalditik dute gaztelarrek herri euskalduna menderatzeko grina, eta horren aurka oso pozik egin genuen gure ahalegintxoak. Eta pertsonalki ere, oso esperientzia aberatsa, benetan. Arte mailako hainbat diziplina ezberdinetako artistak ikuskizun berean lanean... Ederra izan zen.

Amaiurren bertan egin zenuten lanaren estreinaldia. Berezia izango zen, noski...

Hasieratik arrunt motibatua eta proiektuan oso inplikatuak, bertako biztanleen ahalegina eta saiakera ikusita. Zenbat jende lanean, eta denak boluntario. Ikaragarria. Bide batez, orain dela 500 urte gertatutakoaz hobeto jabetzeko aukera ere izan genuen, eta polita izan zen bertan eskaintzea lehen bi saioak.

Gero, Maulen ere saioa egin zenuten, pastoralen berezko lurraldean. Errespetua sentitzen al da hango dantzari "konpetentzia" egiten?

Ez dut uste inork inori konpetentzia egin genionik. Aldrebes, denok denon osagarri izan ginela uste dut, ez zen inondik inora izan elkarren arteko norgehiagoka. Besteen artean, gogora ekarri nahiko nuke gurekin izan zen xiberutar santagrazitar dantzari gaztea, Nikolas Barneix maskaradetako zamaltzaina, lehengo astean istripu batengatik gure artetik joan zaiguna. Gauzez izan zen, eta Amaiurren ez bezala, Maulen bertako gaztelu ikusgarriaren aurrean eskaini genuen ikuskizuna, eta zirrargarria izan zen. Eszenatokia gaztelu eta guzti, beraz, zaldi, zaldun, gerrari... Eta esandako dantzari, antzezle, abeslari, musikari eta bertsolariak. Ederra.

Emanaldi gehiago egingo dituzue?

Ederra izango litzateke, baina zaila izango da. Ez dakigu. Nolanahi ere, ez da erraza izango hainbeste artista berriro ere biltzea emanaldi bakarrerako. Auskalo...

Aukeran taldeko dantzari gisa, zeintzuk dira hurrengo proiektuak?

Gaur egun bi ikuskizun ditugu esku artean (*Genika* eta *Burnia*), beraz, horiekin gabiltza buru belarri. Aurreko astean Basaurin izan ginen *Genika*-rekin. Datozen asteetan *Burnia* ikuskizunarekin Elorrioren, Lekeitioen eta Barakaldon izango gara, azkeneko saio honetan zuzeneko musika-rekin.



Ekain Kazabon Aukeran taldeko dantzari oiartzuarra, Amaiur ikuskizuneko bi momentutan.

## Klixk!

### Roller skian bidegorrian barrena

Errenteriako Urdaburu mendi taldeak antolatutako roller ski txapelketan izena eman zuten 56 kirolariak bidegorrian eskiatu eta patinatu zuren euripean. Bi ibilbide antolatu ziren parte-hartzaileentzako: luzea Mamut merkatal gunetik abiatu zen Arditurri aldera. Motza, haurrena, berriz, Fortalezatik abiatu zen.



### Bizikleta martxa, bakerantz

Oiarzungo Herri Bilguneak antolatuta, herrian abrena bizikleta martxa egin zen euskal presoak Euskal Herriratzearen alde, *Hurbildu bakera* leloarekin. Era berean, Baionan bihar -hilak 10- egingo den manifestaziorako motorrak berotzeko ere baliatu ziztuzten herrian barrena egindako kilometroak.



### TELEFONO BALIAGARRIAK:

- Udaleko informazio bulegoa: 943 49 01 42
- Udaltzaingoa: 943 49 33 11
- Atez ateko Informazio Bulegoa: 900 49 11 11
- Udal Etxebizitza Bulegoa: 943 49 10 00
- Taxia eta taxibusa: 943 49 14 74
- Iparbus eta Xorrola: 943 49 18 01
- Eusko Trenbideak: 902 543 210
- Elorsoro udal kiroldegia: 943 49 25 52
- Manuel Lekuona udal biblioteka: 943 49 38 64
- Osasun Zentrua: 943 49 11 01 / 943 49 26 04
- Elizalde Herri Eskola: 943 49 01 93
- Haurtzaro Ikastola: 943 49 16 59
- Oiarzun Irratia: 943 49 37 11
- Helduen Heziketa Iraunkorra-EPA: 943 49 00 48
- Bidez Bide/Bidelagun programak: 690 769 466

### GUARDIAKO FARMAZIA:

Azaroaren 9tik 15era

Eguez: Losa Iglesias • Mikelete, 5 • 943 49 19 31  
Gauz: Iturbe • Sorgintxulo, 11 (Errenteria) • 943 34 45 68

### Atez atekoa hobetzeko argibideak: Hobetu orain arteko zure lana honako aholku erraz hauekin

#### San Markoseko kamioia, merkatal gunean ez.

San Markoseko kamioi ibiltaria merkatal gunean ez da egoten asteburuetan orain. Aldiz, Talaiako garbigunera jo daiteke larunbatetan (10:00etatik 13:00etara), baita astean zehar. Auzoetan ibilbide bera egiten jarraitzen du kamioiak.

#### Poltsa konpostagarriek arazoak sortzen dituzte plantetan.

Poltsa konpostagarriak ez dira gomendagarriak organikoa biltzeko, izan ere, poltsa hauek hautsi egin behar dira konposta-plantetan eta makinekin arazoak izaten dira. Ontzi marroian poltsarik ez da jarri behar eta etxean konposta egiten dutenek poltsa hauek ez botatzea komeni da, eta botatzekotan, eskuarekin hautsi behar da.

#### Erosketak egiteko urrezko 10 arauak: 9) BAZTERTU MATERIAL MISTOZ EGINDAKO ONTZIAK.

Plastikoa edo aluminio-papera duen paper laminatua. Antzeko bi produktu baldin badituzu aukeran, hautatu paketatze-sistema sinpleena duena (bilgarririk gabea, edo material bakar batekin -berrerabilgarria edo birziklagarria- egina).